


# Iceberg Programa



Alkoholaren iragarki bat  
aztertzen

## HELBURUAK

- ➔ Ulertzea publizitateak kontsumo ez-kritikoa sustatzen duela
- ➔ Ikustea erlazionatuta daudela iragarkiak eta kontsumo orokorra, eta alkoholarena bereziki, areagotzea.
- ➔ Publizitate-mezuekin kritiko izaten ikastea; bereziki, alkoholaren kontsumoa sustatzen dutenekin.

## METODOLOGIA

Ikasleek, talde txikitan, ezagutzen dituzten publizitatea egiteko bideetan pentsatuko dute, eta dagokien fitxa beteko dute. Gero, fitxako iragarkiak edo berek ekarritakoak aztertuko dituzte.

## PUBLIZITATEA EGITEKO BIDEAK

- ✓ **KALEAN** (paretak, hesiak, kabinak, dendak...)
- ✓ **ETXEAN** (postontzia, prentsa, irratia, telebista...)
- ✓ **DENDETAN** (produktuak, sustapenak, kartelak, paretak, megafonia...)
- ✓ **TRESNETAN ETA OBJEKTUETAN** (elastikoak, boligrafoak, metxeroak, edalontziak eta edontzi-azpikoak, eranskailuak...)

Bukaeran, emaitzak elkarrekin partekatu, eta gai hauei buruz eztabaidatuko da:



- ❖ Zer motatako publizitatea erabiltzen (ikusten) dute gehien?
- ❖ Jaramonik egiten diete iragarkiei?
- ❖ Publizitateak eraginik baduela uste dute?
- ❖ Publizitatearekin bonbardatzen dituztela uste dute?

**(PUBLIZITATEA NON AURKITZEN DUGUN)**

<b>KALEAN:</b>  _____	<b>DENDAN:</b>
<b>ETXEAN:</b>	<b>OBJETUETAN      ETA</b> <b>TRESNETAN:</b>

**Aipatutakoetatik, zein bide iristen da publiko gehiagorengana?**

PUBLIZITATE-AZTERKETA







Orrialde honetan, zenbait iragarki ageri dira. Begiratu arretaz, eta, ikaskide baten laguntzaz, erantzun galderai.

### 1. DESKRIBA EZAZU IRAGARKIAN IKUSITAKOA:

- ❖ Irudi mota (marrazkia, argazkia, muntaia,...)
- ❖ Deskribatu irudian agertzen dena eta irudiaren koloreak
- ❖ Azalpen testua edo eslogana

### 2. ZEIN IDEIA IGORTZEN DITU IRAGARKIAK?:

- ❖ Nori zuzendua dago iragarkia?
- ❖ Zein da igorri nahi duen ideia?
- ❖ Ze balore igortzen ditu produktuak?

### 3. SALDU ETA ADITZERA EMAN NAHI DUENAREN DESBERDINTASUNAK

### 4. ONDORIOAK

## IRAGARKI BATEN DISEINUA

Ikasgela 4 edo 5 taldetan zatituta, iragarki bat egin behar da, tabako- kontsumoa prebenitzeko, kolektibo desberdinentzat: ikaskideak, gurasoak eta irakasleak. Iragarkiak ikastetxean jarriko dira gero, ondo ikusteko moduan.

### 1. TALDEA:

Zuen taldeak pentsatu beharko du nola egin ikastetxeko IKASKIDE guztientzako iragarki bat alkohol-kontsumoaren eta -abusuaren arriskuez ohartarazteko. Iragarkia korridore nagusian jarriko da, handik pasatzen diren guztiek ikus dezaten.

### 2. TALDEA:

Zuen taldeak pentsatu behar du nola egin ikastetxeko ikasle guztien GURASOENTZAKO iragarki bat kontziente izan daitezen alkoholak zer arrisku duen osasunerako. Iragarkia ikastetxeko sarrera edo irteerako ateetan jarriko da, hara joaten direnean ondo ikus dezaten.

### 3. TALDEA:

Zuen taldeak pentsatuko du nola egin ikastetxeko BIZILAGUNENTZAKO iragarki bat alkohol-abusuak duen arrisku sozialaz kontzientziatzeko. Iragarkia ikastetxeko sarrera edo irteerako ateetan jarriko da, gure komunitateko jendeak ikus dezaten.



Saioa hurrengoko bideoa ikusten amaitu: “El vendedor de humo”



<https://www.youtube.com/watch?v=dwWqMgddes4>

Informazio gehiagorako:

[www.info@sasoiaprevención.com](mailto:www.info@sasoiaprevención.com)